

**ENPRESA BERRIENTZAKO LOKALA ALOKATZEKO
DIRU-LAGUNTZA HITZARMENA
BERGARAKO UDALAREN ETA ABDELALI DOUDOUH-REN ARTEKOA**

Bergaran, bi mila eta hogeitabateko urriaren 26an.

BILDURIK

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi, Bergarako Udaleko Alkatea, Bergarako Udalaren izenean.

Bestetik, Abdelali Doudouh 79463783 W NAN zenbakia duena, bere izenean.

Abdelali Doudouh jaunak, Alkatearen aurrean zinpean aitortu ondoren ez dagoela diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak aurreikusten dituen debeku kasuetan, alde biek elkarri aitortzen diote kontratatzeko gaitasuna, eta aurrekari gisa, honakoa

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- Bergarako Udalak erabaki zuela Enpresa Berrientzako Lokala alokatzeko diru-laguntza programa bat martxan jartzea. Programa honen bidez, Udala lantzen ari den garapen sozio-ekonomikoa bultzatu nahi du, bi asmo uztartuz. Alde batetik, ekintzaile berriei alokairu-laguntza eskaintzea beraien ibilbide-hasierako urratsetan laguntzeko; eta bestetik, herrian hutsik dauden lokalen erabilera berreskuratzeke.

Diru-laguntza horiek arautzen dituzten oinarriek 2021eko martxoaren 4an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Bigarrena.- Abdelali Doudouh jaunak diru-laguntza eskatu ondoren, 2021eko urriaren 21eko dekretu baten bitartez erabaki da diru-laguntza ematea eta bien betebeharrak hitzarmen batean jasotzea ere.

Horregatik guztiagatik, honakoa



HITZARTZEN DUTE

LEHENENGOA: Bergarako Udalak 2020ko azarotik hasita, Domingo Irala Kalean 5 behean, Abdelali Barber Bergara enpresa jarduera burutzeko alokatuta duen lokaleko alokairu gastuei aurre egiteko, Abdelali Doudouhri diru-laguntza emateko konpromisoa hartzen du gehienez ere bi urtez.

Lehenengo urtean emango duen laguntza izango da 200 eurokoa / hileko (guztira 2.400 euro).

Ordainketa bi zatitan egingo da. Urteko lehen sei hilabetei dagokiena (1.200 euro) ordainduko da hitzarmen hau sinatu eta lehen sei hilabetei dagokien alokairua ordaindu izana egiaztatu ondoren.

Beste sei hilabetei dagokiona berriz ordainduko da, sei hilabete horiei dagokien alokairua ordaindu izana eta betebeharrak fiskaletan, gizarte segurantzakoetan, eta baita ere Bergarako udalarekin, enpresa ordainketetan egunean dagoela egiaztatu ondoren. Ordainketa **ES54.0049.0706.35.2191014978** kontuan egingo da.

Bergarako Udalak halaber, konpromisoa hartzen du bigarren urteko alokairu gastuei ere aurre egiteko. Diru-laguntza emateko Abdelali Doudouhek, alokairu kontratua urte horretarako alokairu prezioarekin aurkeztu beharko du.

Hori aurkeztutakoan udalak zehaztuko du emango duen diru-laguntza, diru-laguntza hauek arautzen dituzten oinarriak jarraituz, Udalak emango duen diru-laguntza alokairu prezioaren %20a izango dela eta gehienez hileko 120 euro.

Bigarren urte horri dagokiona ere bi zatitan ordainduko zaio, zati bakoitzean sei hilabeteri dagokiona, sei hilabete horiei dagokien errenta ordaindu izana, betebeharrak fiskaletan, gizarte segurantzakoetan eta baita ere Bergarako udalaren aurrean ere, ordainketetan egunean dagoela egiaztatu ondoren.

BIGARRENA: Bai Bergarako udalak eta baita Abdelali Doudouhek ere diru-laguntza hauek arautzen dituzten oinarrietan jasotakoa betetzeko konpromisoa hartzen dute.

HIRUGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzen den egunean bertan sartuko da indarrean eta indarrean egongo da laguntza programa bukatu eta hiru hilabete igaro arte.

LAUGARRENA: Hitzarmen honetan zehaztuta ez dagoenean, Bergarako enpresa berrientzat lokala alokatzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2021eko martxoaren 4an argitaratuak) aplikatuko dira. Eta adostasun frogak gisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan.

Sin.: Gorka Artola Alberdi



Sin.: Abdelali Doudouh